Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Joxe Makazaga Arruabarrena

Zarautz, Gipuzkoa
(1935-2014)



Aurkibidea

Biografia



Zarauzko Txerri kalean jaio zen zazpi senideren artean laugarren. Gurasoak Zarauzkoak zituen: aita Berazadizar baserrikoa eta ama Esteraingoa. Miserikordian, La Sallen eta Antonianoetan ikasi ostean, 25 urtez aritu zen igeltsero lanetan; gerora, harakin izan zen, baina istripu larri baten ondorioz Orokieta eskolako atezain izan zen erretiroa hartu arte. Gaztetan arraunlari izandakoa, Zarauzko arraun-elkarteko presidente izan zen hainbat urtez; ondo ezagutzen du arraunaren mundua eta lehendik hona izandako aldaketak.

Zintak

ZAR-144

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Eider
- **Data**: 2011-09-16
- **Iraupena**: 63 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Etxeberria, Eider

ZAR-145

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Eider
- **Data**: 2011-09-16
- **Iraupena**: 61 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Etxeberria, Eider

ZAR-159

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirre, Eli - Etxeberria, Eider
- **Data**: 2012-06-05
- **Iraupena**: 64 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Unamuno, Arianne

ZAR-160

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirre, Eli - Etxeberria, Eider
- **Data**: 2012-06-05
- **Iraupena**: 74 min
- **Euskarria**: Bideo digitala

ZAR-161

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirre, Eli - Etxeberria, Eider
- **Data**: 2012-06-05
- **Iraupena**: 71 min
- **Euskarria**: Bideo digitala

Pasarteak

1. Euskara mutilek bakarrik Zarautzen

- **Erref**: ZAR-144/003
- **Iraupena**: 0:01:36. **Hasi**: 00:02:22. **Bukatu**: 00:03:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Zarautzen lehen neskek kalean ez zuten euskaraz egiten, eta mutilek, ordea, bai. Getarian hobeto gorde zuten euskara, bai neskek eta bai mutilek. Beraiek "Irrintzi" taldean ibiltzen ziren, eta bazuten euskararekiko kontzientzia.

2. 'Irrintzi' taldean dantzan eta antzerkian

- **Erref**: ZAR-144/004
- **Iraupena**: 0:02:12. **Hasi**: 00:03:58. **Bukatu**: 00:06:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza
- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:
Irrintzi taldeari buruz hitz egiten du: hasieran dantza egiten zuten, eta gerora antzerkia. Mutilzaharra antzerkia Gipuzkoa osoan antzeztu zuten; Joxe Alberdi zuten maisu hasieran, eta gerora beraien artean moldatu ziren. Antzezlanak euskaraz izaten ziren eta komeriak izaten zituzten horregatik.

3. 'Irrintzi' taldearen emanaldiak

- **Erref**: ZAR-144/005
- **Iraupena**: 0:02:13. **Hasi**: 00:06:10. **Bukatu**: 00:08:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:
Emanaldiak non izaten ziren aipatzen du. Jendea joaten zen haiek ikustera. Donostian bazen beste antzerki-talde bat. Irrintzi taldeko kideek, antzezteaz gain, argi-lana eta gainerako lanak ere egin behar izaten zituzten.

4. "Irrintzi" taldearen hasiera

- **Erref**: ZAR-144/006
- **Iraupena**: 0:01:17. **Hasi**: 00:08:23. **Bukatu**: 00:09:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:
1955 inguruan hasi ziren "Irrintzi" taldearekin. Lagun artean sortu zuten taldea. Futbola eta mendiko irteerak izaten ziren orduko gazteen aisialdia. Hondartzako futbol-txapelketa hasi zenekoa gogoan du.

5. Zarauzko jauregiak lehen

- **Erref**: ZAR-144/008
- **Iraupena**: 0:02:56. **Hasi**: 00:11:00. **Bukatu**: 00:13:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:
Lehen Zarautz nolakoa zen deskribatzen du: orduko jauregiak, haien jabeak...

6. Aristokraziaren inguruko langileak

- **Erref**: ZAR-144/009
- **Iraupena**: 0:02:31. **Hasi**: 00:13:56. **Bukatu**: 00:16:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak

Laburpena:
Aristokraziarenak ziren Zarauzko lehengo jauregiak. Langile ugari izaten zituzten beraien zerbitzura, besteak beste, ume-zaintzaileak. Aristokrazia mezan zegoen bitartean, Zarauzko mutil koskorrak haien kotxeak zaintzen egoten ziren xox batzuen truke. Orduko autoak nolakoak ziren deskribatzen du.

7. Udatiarrei maletak etxera eramaten

- **Erref**: ZAR-144/010
- **Iraupena**: 0:00:57. **Hasi**: 00:16:27. **Bukatu**: 00:17:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Oporrak

Laburpena:
Lehen udatiarrak trenez etortzen ziren Zarautza; herriko mutil gazteek maletak eramaten zizkieten etxera, xox batzuen truke. Behin izandako anekdota kontatzen du.

8. Udatiarrak etxekoak baino hobeto zaintzen

- **Erref**: ZAR-144/011
- **Iraupena**: 0:01:26. **Hasi**: 00:17:24. **Bukatu**: 00:18:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Oporrak

Laburpena:
Lehen zarauztarrek etxea alokatzen zieten udatiarrei, eta nola-hala moldatzen ziren beraiek uda pasatzeko. Udatiarrak batzuetan hobeto zaintzen zituzten norbere familia baino. Udatiarrak nondik etortzen ziren aipatzen du.

9. Udako uso-tiroak Zarautzen

- **Erref**: ZAR-144/012
- **Iraupena**: 0:02:29. **Hasi**: 00:18:50. **Bukatu**: 00:21:19
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Oporrak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:
Udan Zarautzen zer giro izaten zen aipatzen du: biztanleria bikoiztu egiten zen, ekintza ugari egoten zen... Aristokrazia uso-tiroan aritzen zenean, handik ihes egindako usoen bila joaten ziren mutil koskorrak. Uso-tiroa nola izaten zen azaltzen du.

10. Su artifizialak eta pilota-partiduak Zarautzen

- **Erref**: ZAR-144/013
- **Iraupena**: 0:02:17. **Hasi**: 00:21:19. **Bukatu**: 00:23:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:
Zarautzen festetan su artifizialak eta pilota-partiduak izaten ziren. Pilota garrantzitsua zen; orduko pilotariak aipatzen ditu.

11. Arraunerako zaletasuna umetatik

- **Erref**: ZAR-144/014
- **Iraupena**: 0:01:41. **Hasi**: 00:23:36. **Bukatu**: 00:25:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Arrauna

Laburpena:
Joxeri arrauna gustatu izan zaio kirol guztien gainetik. Arraunean ibili izan da umetatik, hasieran arrantzan eta gerora kirol gisa. Gogoan du bere lehenengo estropada: Aizarnazabalen jokatu zuten San Migel festetan.

12. Baliza-jartzaileen menuaren anekdota

- **Erref**: ZAR-144/015
- **Iraupena**: 0:01:33. **Hasi**: 00:25:17. **Bukatu**: 00:26:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Aisia » Kirola » Arrauna

Laburpena:
Lehen txipiroi asko harrapatzen zen. Zarauzko estropadarik garrantzitsuenak trainerillak izaten ziren; baliza-jartzaileei bazkaria ematen zieten, eta haietako batean txipiroiekin izandako anekdota kontatzen du.

13. Txipiroiekin tailerrarekin baino diru gehiago lortzen zuten

- **Erref**: ZAR-144/016
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:26:50. **Bukatu**: 00:28:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Txibiak eta txipiroiak

Laburpena:
Lehen txipiroi asko harrapatzen zen Zarautzen; diru gehiago lortzen zen txipiroietatik, tailerreko lanetik baino. Horrela lortutako diruarekin zer erosten zuten aipatzen du.

14. Estropadako balizak jartzen

- **Erref**: ZAR-144/017
- **Iraupena**: 0:01:43. **Hasi**: 00:28:10. **Bukatu**: 00:29:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Arrauna

Laburpena:
Estropadatarako balizak nola jartzen ziren eta hartarako zer zailtasun izaten zituzten azaltzen du.

15. Arrauneko entrenamenduak eta patroiaren gaitasunak

- **Erref**: ZAR-144/020
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:31:28. **Bukatu**: 00:33:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Arrauna

Laburpena:
Lehengo entrenamenduak nolakoak izaten ziren eta patroia izateko zer gaitasun izan behar diren aipatzen du.

16. Arraunlari onen ezaugarriak

- **Erref**: ZAR-144/022
- **Iraupena**: 0:01:02. **Hasi**: 00:34:07. **Bukatu**: 00:35:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Arrauna

Laburpena:
Arraunlari onak izateko zer ezaugarri izan behar diren aipatzen du: lehen mutil handiak izaten ziren; gaur egun, ordea, zuntz onak izateari ematen zaio garrantzia.

17. Lehengo eta gaurko kontzeptuak arraunean

- **Erref**: ZAR-144/023
- **Iraupena**: 0:01:49. **Hasi**: 00:35:09. **Bukatu**: 00:36:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Arrauna

Laburpena:
Arraunean azkenengo 6 minutuetan aurreko 15 minutuetan bezain beste indar egin behar izaten da; eta horretarako prestatzen dira gaur egun arraunlariak. Lehen, ordea, ez zioten horri begiratzen. Lehengo eta gaurko entrenamenduak alderatzen ditu.

18. Arraunaren eta ontziaren materialaren garrantzia

- **Erref**: ZAR-144/024
- **Iraupena**: 0:02:22. **Hasi**: 00:36:58. **Bukatu**: 00:39:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Arrauna

Laburpena:
Lehen arraunean lortzen ziren markak hobetu egin dira gaur egun. Arraunek alde izugarria egiten dute: lehengoak pago-egurrarekin egindakoak ziren eta oso astunak ziren, oraingoak berriz zuntzezkoak dira. Ontziaren materialak berak ere garrantzi handia dauka.

19. Lehengo traineruen arazoak

- **Erref**: ZAR-144/025
- **Iraupena**: 0:01:28. **Hasi**: 00:39:20. **Bukatu**: 00:40:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Arrauna

Laburpena:
Lehengo traineruak nolakoak ziren eta zer arazo ematen zituzten azaltzen du.

20. Denek ontzi antzekoak, alderik ez egoteko

- **Erref**: ZAR-144/026
- **Iraupena**: 0:01:48. **Hasi**: 00:40:48. **Bukatu**: 00:42:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Arrauna

Laburpena:
Joxe arraunean ibiltzen zen garaian, Donostiak jartzen zituen estropadatarako ontziak. Izan ere, bestela aldeak egoten ziren talde batetik bestera, haietakoren batek ontzi berria erosiz gero.

21. Lehengo arraun-taldeen arteko ika-mikak

- **Erref**: ZAR-144/028
- **Iraupena**: 0:01:51. **Hasi**: 00:42:49. **Bukatu**: 00:44:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Arrauna

Laburpena:
Lehen zer arraun-talde zeuden aipatzen du. Zarauztarren eta zumaiarren artean ika-mika egoten zen. Oriotarrak ziren onenak, baina beraien artean liskarrak zeuzkaten.

22. Oriotarrak bitan banatu ziren urtea

- **Erref**: ZAR-144/029
- **Iraupena**: 0:03:36. **Hasi**: 00:44:40. **Bukatu**: 00:48:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Arrauna

Laburpena:
1961ean oriotarrek liskarra izan zuten eta bitan banatu ziren trainerua ateratzeko garaian. Trainerua osatu ezinik, alde bat Tolosarekin elkartu zen eta bestea Zarautzekin. Orduko gorabeherak kontatzen ditu.

Transkripzioa
- Hirurogeita batekua ere, nik jokatu nuna ere, xelebria izan zan. Traiñeruetan-ta oso ondo ibili zian. Geo, Oriyon bi bando in zian trainerillak bukauta. Ta triñaua ateatzeko ez zian /etzian/ bi... bi bando, esan deuan, bi talde hoiek ez zian alkartu triñaurako. Ta hirurogeita bata zan hoi. Ta ordun in zuen oriyotarrak, talde batekuak, Tolosakin-ta in zuen, Tolosan izenen uste det irten ziala. Ta beste Oriyoko taldiak ikusi zun “Hau dek marka hau! Hola ez zeok ezer iteikan Donostiyan!” Ta hamen ni pixkat lagata neon arraunai, urte hartan ez nintzan bat´e ibili. Ta hamen traiñerilla ibili zan Zarautzen.Ta, ordun, oriyotarrak pentsatu zuen, Zarautzen Alvaro Azpeitia ta [orduen] ta haiekin hitz ein ta “Zarauzko izenen ateako al deu triñaua?”, oriyotarrak zarauztarrakin. Ni... Alkarrekin hartan gelditu zian. Eta nei deitu zian. Eta xelebria hoi da: Ama Birjiñan egunian deitu zian entrenamentota aber hasiko nintzan, triñaua Zarauzko izenen ateatzeko. Ta ni, Donostin jokatzeko, Ama Birjiña eunen, abuztuko hamabostian hasi nintzan entrenatzen. Ta jun giñan Zarauztikan bi, lau... bost. Bai, bost. Ta entrenamentuan hasi giñan. Ta entrenamentu gogorrak zian haiek! Ta oriyotarrak ibilita zauden ondo. Traiñerilletan punta-puntan ibili zian, aurrena, ta haiek ondo. Ta hamendik jun zianak ezin zuen entrenamentua segi ta biek laga in zuen ta beste bi suplente bezela eon zian ta ni bak.... Zarauzko izenen ta ni bakarrik nitzan zarauztarra, beste danak Oriyo ta Agiñakuak zian. Oriyo ta Agiñakuak zian beste danak. Pikabea anaiak eta... [Ni gogoratzen naiz]. Ta ni bakarrik zarauztarra. Hoi xelebria hoi da. Zarauzko izenian, hirurogeita batian, oaintxe dia, gaiñea, berrogeita hamar urte, ta ni bakarrikan zarauztarra. Laugarren in gendun. Bai. Ta... Gure afiziyuak holaxe zian.
- Eta Tolosan izenekuak zenbatgarren?
- Tolosa izenekuak, haiek hirugarren in zeela uste det.
- Hortxe, e?
- Bai, bai.
- Ta zeiñek irabazi zun urte hartan?
- San Juan, San Juanek hirurogeita baten. Ordun, gaiñea, zian, San Juan ta Sanjuandarra, ta uste det aurrena ta bigarren gelditu ziala uste det. Baiña pena zan, e! Oriyon halako kuadrilla eon, e? ta sesiyo... gertatu... gelditu zan... beren artian ze sesiyo zeatu zan, batzuk alde batea ta bestiak bestea. Ta geo bestiak, oriyotarrak´e Joanito `Altxerri´k-eta ikusten, “Joe, oain Oriyon izenen gu ez gaituk aurrena sartuko ta ze in ber deu?” ta pentsatu zuen “Hobe izango dek Zarautzen izenen jun” ta. Zarautzen ta ni bakarrik zarauztarra. Hura´re marka! Ai ene, haiek dituk kontuak haiek! Oain berrogeita hamar urteko kontuak. Hobe genduke ordungo sasoia [mantendu], baiña... Urtiak jun iten dia /iteiya/ ta. Holaxe kontuak...

23. Traineruan ateratzeko baldintzak

- **Erref**: ZAR-144/034
- **Iraupena**: 0:00:45. **Hasi**: 00:53:33. **Bukatu**: 00:54:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Arrauna

Laburpena:
Lehen herriko traineruan herriko jendea aritzen zen. Arraunlari izateko baldintza batzuk bete behar ziren: lehen-lehen, herriko arrantzalea izan behar zen; gerora, herrikoa; geroago, bailarakoa; eta azkenik, dirua agertu zenetik, baldintzarik ez dago.

24. Kontxako estropadetako giroa eta garraiobideak

- **Erref**: ZAR-144/036
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:55:04. **Bukatu**: 00:56:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Arrauna
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:
Lehen Kontxako estropadak zirenean, giro izugarria egoten zen. Egun hartarako autobus- eta tren-zerbitzu bereziak jartzen zituzten. Hain ziren zaharrak autobus batzuk, Joxek aterkia irekita joan behar izan baitzuen behin autobus barruan.

25. Zarauzko estropadetako ikurrina

- **Erref**: ZAR-144/037
- **Iraupena**: 0:01:29. **Hasi**: 00:56:04. **Bukatu**: 00:57:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Arrauna

Laburpena:
Zarautzen estropadak antolatzen hasi eta handik urtebetera ikurrina legeztatu zen; ordutik, ikurrina eramaten zuen irabazleak. Michelin izan zen hura eraman zuen lehenengo taldea. Michelingo arraunlarien lan-baldintzei buruz hitz egiten du.

26. Zarauzko estropadak egiteko trabak

- **Erref**: ZAR-144/038
- **Iraupena**: 0:00:58. **Hasi**: 00:57:33. **Bukatu**: 00:58:31
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Arrauna

Laburpena:
Estropadak antolatzeko, hainbat lan burokratiko egin behar izaten dira. Zarauzko estropadak antolatzeko, traba ugari egon ziren, baina azkenean aurrera ateratzea lortu zuten.

27. Arraun egiteko, eguraldiari eta urari begiratu behar

- **Erref**: ZAR-144/039
- **Iraupena**: 0:03:07. **Hasi**: 00:58:31. **Bukatu**: 01:01:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Arrauna
- Natura » Meteorologia

Laburpena:
Estropadak itsasoan edo ibaian egin, alde handia dago. Itsasoa txartzeak kalte handia egin dezake estropadaren emaitzetan. Enbata ostean, itsasoa bare-bare egoten da. Eguraldia asmatzeko zeri begiratu izan dioten azaltzen du.

28. Arraunerako eguraldi aproposa

- **Erref**: ZAR-144/040
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 01:01:38. **Bukatu**: 01:02:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Arrauna
- Natura » Meteorologia

Laburpena:
Arraunean ibiltzeko eguraldirik onena: laino pixka bat, berorik ez, haizerik ez eta itsasoa bare. Haizeak onura baino kalte gehiago ekartzen du arraunean.

29. Estropadak bertan behera uzteko moduko eguraldiak

- **Erref**: ZAR-145/001
- **Iraupena**: 0:01:47. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:01:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Meteorologia
- Aisia » Kirola » Arrauna

Laburpena:
Estropadak bertan behera uzteko moduko eguraldiari buruz hitz egiten du. Arraun egin bitartean, gertatu izan da elurra edo izotza egin izana.

30. Estropaden egutegia

- **Erref**: ZAR-145/002
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 00:01:47. **Bukatu**: 00:03:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Arrauna

Laburpena:
Estropaden egutegia azaltzen du: umeenak neguan hasi eta udan bukatzen dira; zaharrenak, ordea, udaberrian eta udan izaten dira.

31. Estropada gehiago pixkanaka

- **Erref**: ZAR-145/003
- **Iraupena**: 0:01:29. **Hasi**: 00:03:12. **Bukatu**: 00:04:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Arrauna

Laburpena:
Lehen estropaden denboraldia oraingoa baino motzagoa zen, estropada gutxiago baitzeuden. Pixkanaka zer estropada joan izan diren antolatzen aipatzen du. Ibaiko eta itsasoko estropaden aldeak aipatzen ditu.

32. Zarauzko arraun-elkartearen sorrera

- **Erref**: ZAR-145/005
- **Iraupena**: 0:02:18. **Hasi**: 00:05:05. **Bukatu**: 00:07:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Arrauna

Laburpena:
1983an Zarauzko arraun-elkartea sortu zuten; Joxe buru-belarri sartu zen haren antolaketan. Orduko gorabeherak kontatzen ditu: ontziak nola lortu zituzten, non hasi ziren entrenamenduak egiten...

33. Entrenamenduak Zarauztik kanpo

- **Erref**: ZAR-145/006
- **Iraupena**: 0:02:19. **Hasi**: 00:07:23. **Bukatu**: 00:09:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Arrauna

Laburpena:
Zarautzen arriskutsua da arraun egitea, eta horregatik Getariara eta Oriora joaten ziren entrenamenduak egitera. Hara joateko, Joxek eramaten zituen kotxez arraunlariak.

34. Zarauzko arraun-elkartearen garaipenak eta "Txiki" patroia

- **Erref**: ZAR-145/007
- **Iraupena**: 0:02:44. **Hasi**: 00:09:42. **Bukatu**: 00:12:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Arrauna

Laburpena:
Urte batean, Zarauzko arraun-elkarteak hiru txapelketa irabazi zituen. "Txikik"

patroi izateko martingalak nola ikasi zituen azaltzen du. "Txiki" oso egokia zen patroi izateko.

35. Ziabogak estropadaren bizigarri

- **Erref**: ZAR-145/008
- **Iraupena**: 0:02:11. **Hasi**: 00:12:26. **Bukatu**: 00:14:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Arrauna

Laburpena:
Ziaboga ondo hartzeko jakin beharreko martingalak azaltzen ditu Joxek. Traineruaren zatiak aipatzen ditu. Kategoriaren arabera, ziaboga kopurua aldatu egiten da.

36. Traineruaren egitura

- **Erref**: ZAR-145/009
- **Iraupena**: 0:02:54. **Hasi**: 00:14:37. **Bukatu**: 00:17:31
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Arrauna

Laburpena:
Traineruaren osagaien izenak aipatzen du. Traineruaren barruan, osagaien egitura aldatzen joan da denboran zehar. Haizearen arabera, alde batetik edo bestetik arraun egitea komeni da.

37. Zer aldetan egiten duzu arraun?

- **Erref**: ZAR-145/010
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:17:31. **Bukatu**: 00:19:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Arrauna

Laburpena:
Arraunlariek alde batean edo bestean egin arraun, teknika aldatu behar dute. Bi aldeetan arraun egiten jakitea hobea da, horrela arraunlaria abilagoa da.

38. Estropuaren funtzioa eta egitura

- **Erref**: ZAR-145/011
- **Iraupena**: 0:02:52. **Hasi**: 00:19:11. **Bukatu**: 00:22:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Arrauna

Laburpena:
Arrauna kareleko toletean kateatzen da estropuaren bidez. Estropuari buruz hitz egiten du: materiala, egitura...

39. Traineruaren zatiak

- **Erref**: ZAR-145/012
- **Iraupena**: 0:02:39. **Hasi**: 00:22:03. **Bukatu**: 00:24:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Arrauna

Laburpena:
Arrauneko lexikoa azaltzen du: karela, trainerua, toletak, arraunak, palka... Palkak gaur egun zuntzez eginak dira, baina lehen egurrezkoak izaten ziren, okumezkoak. Behin olatu batek traineru baten palka puskatu zuen.

40. Arraunean aritzeko igerian jakitearen garrantzia lehen eta orain

- **Erref**: ZAR-145/013
- **Iraupena**: 0:02:13. **Hasi**: 00:24:42. **Bukatu**: 00:26:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- Aisia » Kirola » Arrauna

Laburpena:
Gaur egun nahitaezkoa da igeri egiten jakitea arraunean aritzeko; lehen, baina, ez. Adunako bi mutil ito egin ziren arrauneko entrenamenduan, igerian ez jakiteagatik. Ezbehar handia izan zen hura. Ontzia hondoratzen denean, sosegua mantentzea oso garrantzitsua da, baina ez da erraza.

41. Itsaso txarrarekin ateratzeko beldur

- **Erref**: ZAR-145/014
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:26:55. **Bukatu**: 00:28:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Arrauna

Laburpena:
Urte batean oso itsaso txarra izan zen Gipuzkoako txapelketan, eta Zumaiako traineruak ez zuen nahi atera izan; gerora jakin zuten arrazoia: arraunlarietako batek ez zekien igerian.

42. Moilan ikasi zuten igerian

- **Erref**: ZAR-145/015
- **Iraupena**: 0:01:32. **Hasi**: 00:28:05. **Bukatu**: 00:29:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:
Zarauzko moilan ikasi zuten igerian mutil koskorrak zirela; baina neskek ezin zuten moilan bainatu, bekatua baitzen, neskak hondartzan ibiltzen ziren.

43. Moilako umeak, gero eta argiagoak

- **Erref**: ZAR-145/016
- **Iraupena**: 0:01:21. **Hasi**: 00:29:37. **Bukatu**: 00:30:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:
Moilan bainatzen zirenean, jauzi egiten zuten uretara. Lehen dirua bota eta uretan bilatzen zuten txanpona; orain, ordea, uretara salto egin aurretik hartzen dute dirua.

44. Kukainaren gainean jolasean

- **Erref**: ZAR-145/018
- **Iraupena**: 0:01:52. **Hasi**: 00:31:50. **Bukatu**: 00:33:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak

Laburpena:
Gaztetan kukainarekin aritzen ziren jolasean: seboa jartzen zuten kukainaren gainean, eta bukaeran zegoen bandera hartzen saiatu behar zuten. Bandera harrapatzeko sistema ugari zeuden. Polita izaten zen ikuskizun hura eta jende asko egoten zen hari begira. Irabazleek saria izaten zuten.

45. Arrauna erabiltzeko teknikaren garrantzia

- **Erref**: ZAR-145/020
- **Iraupena**: 0:02:28. **Hasi**: 00:36:02. **Bukatu**: 00:38:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Arrauna

Laburpena:
Arrauna erabiltzeko teknika azaltzen du. Arrauna hasieratik ondo erabiltzen ikastea oso garrantzitsua da, gerora akatsak zuzentzea zaila baita. Arraunean gorputz guztia lantzen da.

46. Arrauna kirol bihurtu baino lehen...

- **Erref**: ZAR-145/021
- **Iraupena**: 0:01:01. **Hasi**: 00:38:30. **Bukatu**: 00:39:31
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Arrauna

Laburpena:
Arraunaren jatorria arrantzan dago: arrantzatik moilara lehenengo ailegatzen zenak salmentako prezio onena izaten zuen.

47. Donostiarren eta ondarroarren arteko apustua

- **Erref**: ZAR-145/022
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:39:31. **Bukatu**: 00:40:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:
Apustuak egiten ziren arraunean lehen ere. Duela 100 urte inguru, Lekeitiotik Getariara arraunean joateko apustua egin zuten ondarroarren eta donostiarren artean: donostiarrek irabazi omen zuten, eta Ondarroan diru-galera handiak egon ziren orduan.

48. Apustuetako trikimailuak

- **Erref**: ZAR-145/023
- **Iraupena**: 0:01:42. **Hasi**: 00:40:41. **Bukatu**: 00:42:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:
Apustuetan egin izan diren trikimailuak kontatzen ditu.

49. Apustuan izandako fedea

- **Erref**: ZAR-145/025
- **Iraupena**: 0:00:51. **Hasi**: 00:43:12. **Bukatu**: 00:44:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:
Behin Tolosako batelak zirela izandako apustuaren anekdota kontatzen du.

50. 8 urtera arte gosea ase ezinik

- **Erref**: ZAR-145/031

- **Iraupena**: 0:03:06. **Hasi**: 00:55:30. **Bukatu**: 00:58:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:
Gerra ostean gosea pasa zuen. Orduko anekdotak kontatzen ditu. Garai hartan morokila jaten zuten esnetan bustita; baina Joxek morokila huts-hutsik jaten zuen. Esnea egosi egiten zuten edan aurretik, eta Joxek esnegaina jaten zuen inor konturatu baino lehen.

51. Bost urtera arte, "Txakurran sala" auzoa bizileku

- **Erref**: ZAR-159/001
- **Iraupena**: 0:02:34. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:02:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:
Gerra aurretik jaio arren, oso ume txikia zen eta ez da gerrako kontuez gogoratzen. "Txakurran sala" deitzen zioten auzoan bizi zen umetan, orain poligonoa dagoen lekuan. Uholdeengatik ihes egin zuten anai-arreba bik eta amak zigortu egin zituen. Handik Santa Marinara joan ziren bizitzera alokairuan.

52. Etxean noiznahi sutea

- **Erref**: ZAR-159/002
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:02:34. **Bukatu**: 00:04:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:
Etxepean tailerra ipini zuten. Ez ziren oso langile arduratsuak eta noiznahi sua izaten zuten.

53. Etxe handia zuten

- **Erref**: ZAR-159/003
- **Iraupena**: 0:01:03. **Hasi**: 00:04:09. **Bukatu**: 00:05:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura

Laburpena:
Etxe handia eta zaharra zen. Batzuetan gauzak non zeuden ere ez zuten jakitzen. Anekdota bat kontatzen du.

54. Etxea erosteko baserritarrei dirua eskatu

- **Erref**: ZAR-159/004
- **Iraupena**: 0:02:07. **Hasi**: 00:05:12. **Bukatu**: 00:07:19
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:
Etxean diru askorik ez zuten eta jabeak etxea salgai jarritakoan, etxepeko tailerreko jabeak erosi zuen. Alokairuan pisu batera joan ziren. Bitartean utzitako etxe hura erosteko baserritarrei dirua eskatu zieten.

55. Aurreneko dutxa

- **Erref**: ZAR-159/005
- **Iraupena**: 0:01:39. **Hasi**: 00:07:19. **Bukatu**: 00:08:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura

Laburpena:
Bederatzi anai-arreba ziren. Komun bakarra zuten etxean. Harraskan garbitzen zuten burua ur beroarekin. Aurreneko dutxa hamabost urte ingururekin hartu zuen.

56. Frantziar eta alemaniarrak ihesi Zarautzera

- **Erref**: ZAR-159/006
- **Iraupena**: 0:01:32. **Hasi**: 00:08:58. **Bukatu**: 00:10:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945)
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin harremana

Laburpena:
Gogoan du frantsesak ihesi etorri ziren garaia, baita ondoren alemaniarrak etorri zirenekoa ere. Umetan ilehoria zenez, Josetxo Aleman esaten omen zioten.

57. Igeltseritza lanbide

- **Erref**: ZAR-159/007
- **Iraupena**: 0:02:51. **Hasi**: 00:10:30. **Bukatu**: 00:13:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Lanbideak » Etxeginak

Laburpena:
Eskolan Miserikordian ibili zen, gero Herriko Eskolara, handik La Sallera eta azken bi urteak fraideekin. Hamabost urterekin lanean hasi zen igeltsero. Osasun arazoengatik lana utzi eta harategia jarri zuen.

58. 1963an lehenengo garabia herrian

- **Erref**: ZAR-159/008
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:13:21. **Bukatu**: 00:16:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Lanbideak » Etxeginak

Laburpena:
Igeltseroek lehenengo teilatua egiten zuten eta ondoren barruko egitura jartzen zuten. Azulejoak ere ipintzen zituzten. 1963 inguruan ekarri zuten Zarautzera lehenengo garabia. Aurretik bizkarrez jaso eta jeisten zuten dena.

59. Lan-baldintza txarrak

- **Erref**: ZAR-159/009
- **Iraupena**: 0:02:49. **Hasi**: 00:16:01. **Bukatu**: 00:18:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Lanbideak » Etxeginak

Laburpena:
Itxaropenanekoa, Odriozolanekoa, Ziorda kaleko beste bat izan ziren Zarautzen egindako etxeak. Asko. Besteentzako etxeak egin eta norberarentzako ezin. Hiru tabloirekin ibiltzen ziren, barandarik gabe, arrisku handiarekin.

60. Atezain Orokieta eskolan

- **Erref**: ZAR-159/010
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:18:50. **Bukatu**: 00:20:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:
<p>Osasunak lagundu ez eta harategia zabaldu zuen. Osasuna gero eta okerrago, atezain hasi zen Orokieta eskolan, trantsizio garaian. Aurreko alkateak ikurrina legeztatutakoan dimisioa eman zuen eta Imanol Muruak

hartu zuen lekua eta hark inauguratu zuen eskola. Urtebete geroago irabazi zituen Muruak hauteskundeak.</p>

61. Obretan inspekziorik ez

- **Erref**: ZAR-159/011
- **Iraupena**: 0:03:07. **Hasi**: 00:20:50. **Bukatu**: 00:23:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:
Trantsizio garaian egiten ziren eskolek beheko solairuak metro inguruko altura izaten zuen. Horrelakoa zen Ortuellakoa ere, eztanda izan zuen hura. Obrak bukatu eta inork ez zuen inspekziorik egiten.

62. 70-80 hamarkadak, gogorrak gazteentzat

- **Erref**: ZAR-159/012
- **Iraupena**: 0:02:47. **Hasi**: 00:23:57. **Bukatu**: 00:26:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Bizioak

Laburpena:
Bera atezain zela,70-80 hamarkadetan, ikasketak bukatutako ikasle askok, mutilek bereziki, arazo handiak sortu zituzten eskolan. Droga kontuak ere gogorrak izan ziren garai hartan.

63. Etorkin asko lanera

- **Erref**: ZAR-159/013
- **Iraupena**: 0:02:12. **Hasi**: 00:26:44. **Bukatu**: 00:28:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Boom industriala

Laburpena:
Galiziatik, Extremaduratik eta beste hainbat lekutatik jende asko, familia osoak, etorri zen lanera. "Txiki"ren aitonarekin lanean aritutakoa da. Extremeñoa zen hura eta Donostiako erresidentzia egitera etorria zen.

64. Umetako jolaslekuak

- **Erref**: ZAR-159/015
- **Iraupena**: 0:02:07. **Hasi**: 00:30:35. **Bukatu**: 00:32:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak

Laburpena:
Zalbiden bazen erreka eta handik aritzen ziren jolasean. Hondartzan Harralde txikia izeneko lekua zegoen eta arrokatan ibiltzen ziren. Moian ere asko ibiltzen ziren arrantzan eta.

65. Arrantzan hondartza parean

- **Erref**: ZAR-159/016
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:32:42. **Bukatu**: 00:34:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Beste batzuk

Laburpena:
Zarauzko hondartza parea oso aberatsa zen arrantzarako. Noiz edo noiz Getaria edo Oriora joaten zen. Txalupatan bi lagun bina arraunekin joaten ziren.

66. Galerna beti San Anton aldetik

- **Erref**: ZAR-159/017
- **Iraupena**: 0:01:39. **Hasi**: 00:34:12. **Bukatu**: 00:35:51
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Eguraldia, ilargia eta mareak

Laburpena:
Galerna ia beti San Anton aldetik etortzen denez, itsasoan Getariatik Zarautzera etortzea erraza da baina Orio parean izanez gero, Donostiara joaten laguntzen du. Noiz edo noiz zurrunbiloak sortu izan dira.

67. Bermeoko zoritxarra

- **Erref**: ZAR-159/018
- **Iraupena**: 0:02:18. **Hasi**: 00:35:51. **Bukatu**: 00:38:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Eguraldia, ilargia eta mareak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:
XX. mende hasierako Bermeoko zoritxarra: Urkola izeneko apaiz bat Igeldoko obserbatorioko buru zen eta jakinarazi zuen denborale gogorra zetorrela eta arrantzale asko ez ziren itsasoratu. Baina belaontziak zirenez ordukoak, itsasoan zebiltzan ontzi asko galdu zen. Eguraldi sargoria bazen, kontuz ibiltzen ziren.

68. Itsasoratzerakoan, Ama Birjinari salbea errezatu

- **Erref**: ZAR-159/019
- **Iraupena**: 0:01:11. **Hasi**: 00:38:09. **Bukatu**: 00:39:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:
Itsasoratzerakoan, Ama Birjinari salbea errezatzen zioten. Fede handia zegoen orduan.

69. Elizaren gainbehera

- **Erref**: ZAR-159/020
- **Iraupena**: 0:03:25. **Hasi**: 00:39:20. **Bukatu**: 00:42:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:
Dotrina euskaraz izan zuten jaunartze txikirako eta erdaraz jaunartze handirako. Elizan aldrebeskeriak ikusten hasi ziren eta orduan galdu zuten fedea. Duela 60 urte hasi zen gainbehera. Apaizak konfesatzerakoan dena jakitzen zuen, etxekoek baino gehiago. Dantzarako ezkutuka ibiltzen ziren.

70. Urdanetako apaizaren gehiegikeriak

- **Erref**: ZAR-159/021
- **Iraupena**: 0:03:42. **Hasi**: 00:42:45. **Bukatu**: 00:46:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:
Emaztea aiarra du. Urdaneta auzoko apaizak, Don Danielek, gehiegikeria asko egin zituen mutilak beldurtzeko asmotan. Erromeria zenean apaizetxetik begira aritzen zen gizona. Zumaiara bidali zutenean ere astakeriak egin zituen.

71. Apaizak bide berria egiterik nahi ez

- **Erref**: ZAR-159/022

- **Iraupena**: 0:01:38. **Hasi**: 00:46:27. **Bukatu**: 00:48:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:
Don Daniel apaiza Urdanetatik joandakoan egin zuten auzorako bidea, hark ez zuelako uzten.

72. Nobiotan dantzara, zinera eta meriendak

- **Erref**: ZAR-159/023
- **Iraupena**: 0:02:38. **Hasi**: 00:48:05. **Bukatu**: 00:50:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:
Bere ama zenaren baserrian egon zen emaztea eta handik ezagutu zuen. Dantzara joan eta hurrengorako gonbidapena egitea zen lehenengo zita. Laubost aldiz dantzalagun izanez gero, bikote egiten ziren. Meriendatara edo zinerako plana egiten zuten.

73. Emakumeen indarra

- **Erref**: ZAR-159/024
- **Iraupena**: 0:01:41. **Hasi**: 00:50:43. **Bukatu**: 00:52:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Nobiotan Oriora joan ziren estropadetara eta mutilak behar baino gehiago luzatu eta neskak haserretu zitzaizkien. Emakumeek eraman izan dituzte etxeko kontuak beti beraienean.

74. Kontakizun barregarria

- **Erref**: ZAR-159/025
- **Iraupena**: 0:01:27. **Hasi**: 00:52:24. **Bukatu**: 00:53:51
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:
Zarauzko taberna bateko kontu barregarria.

75. Nobiotan eraztuna opari

- **Erref**: ZAR-159/026
- **Iraupena**: 0:01:54. **Hasi**: 00:53:51. **Bukatu**: 00:55:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak

Laburpena:
Nobiotan eraztuna oparitu zion eta orduan eman zion aurreneko musua emazteak. Ezkondu arte ezin izaten zuten musutik pasa.

76. Bikotea familiari aurkeztu

- **Erref**: ZAR-159/027
- **Iraupena**: 0:01:44. **Hasi**: 00:55:45. **Bukatu**: 00:57:29
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:
Ezkondu aurretik bikotea familiari aurkezten zitzaion. Koinatua aurkezteko egunean komeriak izan zituzten etxean.

77. Ezkontza xumea

- **Erref**: ZAR-159/028
- **Iraupena**: 0:04:03. **Hasi**: 00:57:29. **Bukatu**: 01:01:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:
Zarautzen bertan ezkondu ziren eta Miramarren bazkaldu. Autobusez elizara joatekoak ziren baina oinez joan behar izan zuten eta andregaia zai izan zuen. Familia eta lagunak batu ziren. Ezkonaurrean despedida egiten zen.

78. Irrintzi antzerki taldean

- **Erref**: ZAR-159/029
- **Iraupena**: 0:02:28. **Hasi**: 01:01:32. **Bukatu**: 01:04:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:
Antzerkian aritzen zen kuadrillarekin, Irrintzi taldean. Gipuzkoan zehar ibiltzen ziren. Imanol Urbieta ere tartean izaten zen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-20

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com